

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/24

***Condamnați să se înțeleagă*, proiektu artistiko biren arteko alkarrizketea, Batzar Nagusietako Erakusketa Aretora heldu da**

Bizkaiko Batzar Nagusiek Euskal Herriko Unibersidadeagaz (UPV – EHU) daukien hitzarmenak beste erakusketa bat ekarri dau Erakusketa Aretora. Amaia Legarretaren (Lodosa, 1988) eta Eriz Moreno Arangurenen (Bilbo, 1982), *Condamnați să se înțeleagă*, artistek hainbat lekutan bizi izan dituen esperientzia personalak erakusten dituen argazki eta bideo proiektu bik osatutako lana da. Bagilaren 14ra arte zabalik egongo dan erakusketea gaur goizean inaugurau dau Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea. Arratsaldean erakusketea jente guztiaren aurrean aurkeztu da, artisten unibersidadeko kideak eta senideak be alkartu dituan ekitaldi publikoan.

Erakusketa, Amaia Molinet eta Eriz Moreno artisten proiektuen aukeraketa batetik sortutako alkarrizketa moduan eratu da, “biek be, mendebaldeko biztanle moduan daukagun gure egunerokotasunean agertzen ez diran gaiak ikutzen dituelako”, Filipa Duarte erakusketaren komisarioak, UPV – EHUko arte garaikidearen kontserbazino eta erakusketa masterreko ikasleak, azaldu dauenez. Horrez gain, lan biek, leku komuna proponiduten dabe euren produkzino artistikoan, maila kontzeptualean, argazkian eta bideoan egindako artelanen bitartez, “oroimen historikoagaz eta muga politikoakaz eta naturalakaz” erlazionautako gaiak landuz.

Aurkeztutako artelanak leku honeetan egin dira: Islandia hegoaldean dagon Sólheimajökull glaziarrean; Eslovenian dagon Triglav mendian; Tindoufen, Aljerian, dagon Smarako errefuxiatu sahararren eremuko dunatan; eta baita Ararat mendiaren inguruetan be, Armeniatik, Turkiatik, Irlandik eta Azerbaidjandik ikusita.

Alde batetik, Eriz Morenoren lana, Esloveniako eta Armeniako sinbolo nagusietako bitan oinarritzen da: Triglav mendian eta Ararat sumendian. Argazkien eta ordu biko iraupena daukien bideoen bitartez, artistak “distantzia bat jarri” gura dau beraren eta sinboloaren artean, “objektibazinoaren” bitartez. Inpartzialtasun horren emaitzea, Triglaven kasuan, mendiari buruzko lau bideotan islatzen da, lau puntu kardinaletatik egindakoak.

Amaia Molineten kasuan, proiektuaren izenburua *Es posible que la tierra quisiera ser como antes de que existiera 2015 – 2018* da, eta “ia kontrajarrita” dagozan muga bitan zentratzen da. “Leku horreetatik interesetan jatena, konnotatuta ez egoteaz eta kontrajarrita egoteaz aparte, muga artifizial eta natural batean, hurrenez hurren, dagozan lekuak dirala da”. Lehenengoa, Mendebaldeko Sahara, muga politiko moduan, eta bigarrena Islandian dagon Eyjafjallajökull glaziarra, muga natural moduan.

Izenburua errumanieraz aukeratu izana, artista batek ezagutzen ez dauen hizkuntza dala da, baina baita biek batera daukien helburuetako bat Errumaniara bidaiatzea dalako, alkarregaz egingo daben lehenengo proiektua aurrera eroan ahal izateko.

NOTA DE PRENSA

24/05/18

***Condamnați să se înțeleagă*, un diálogo entre dos proyectos artísticos, llega a la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales**

El convenio que las Juntas Generales de Bizkaia mantienen con la Universidad del País Vasco (UPV – EHU) ha desembocado en la presentación de una nueva muestra en la Sala de Exposiciones. *Condamnați să se înțeleagă*, de Amaia Legarreta (Lodosa, 1988) y Eriz Moreno Aranguren (Bilbao, 1982), se trata de un trabajo conformado por dos proyectos fotográficos y video gráficos que reflejan las experiencias personales vividas por los artistas en diversos emplazamientos. La exposición, que permanecerá disponible hasta el 14 de junio, ha sido inaugurada esta mañana por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, mientras que a la tarde la muestra ha sido presentada en un acto público al que han asistido compañeros y compañeras de la Universidad y familiares de las artistas.

La exposición surge como un diálogo a partir de una selección de proyectos de los artistas Amaia Molinet y Eriz Moreno, “porque ambos tocan cuestiones que no están tan presentes en nuestra cotidianidad como occidentales”, según explica la comisaria de la muestra Filipa Duarte, estudiante del Máster de conservación y exhibición de arte contemporáneo en la UPV – EHU. Sendos trabajos, además, proponen un espacio común en su producción artística, a nivel conceptual, que llega mediante obras realizadas en fotografía y vídeo, y que abordan “cuestiones de memoria histórica y fronteras políticas y naturales”

Las obras presentadas han sido realizadas en el glaciar Sólheimajökull, en el sur de Islandia; en el monte Triglav, en Eslovenia; en las dunas del campo de refugiados saharauis de Smara, en Tindouf, Argelia; y también alrededor del monte Ararat, visto desde Armenia, Turquía, Irán y Azerbaiyán.

Por un lado el trabajo de Eriz Moreno se fundamenta en dos de los símbolos principales de Eslovenia y Armenia: la montaña Triglav y volcán Ararat. Mediante fotografías y vídeos de dos horas de duración, el artista procura “poner distancia” entre él y el propio símbolo mediante “la objetivación”. El resultado de esta imparcialidad, en el caso del Triglav, se refleja en cuatro vídeos de la montaña desde los cuatro puntos cardinales.

En el caso de Amaia Molinet, su proyecto lleva como título *Es posible que la tierra quisiera ser como antes de que existiera 2015 – 2018* y se centra en dos fronteras “casi opuestas”. “Lo que me interesa de estos lugares, es que además de no estar connotados y de ser opuestos, están en una situación en la que se encuentran en una frontera artificial y natural”. En primer lugar el Sahara Occidental como frontera política, y en segundo lugar el glaciar Eyjafjallajökull, en Islandia, como frontera natural.

La elección del título en rumano se debe al hecho de que es un idioma desconocido por parte de uno de los artistas, pero también porque uno de los planes que tienen en común consiste en viajar a Rumanía, para realizar el que será su primer proyecto en conjunto.